



3. Adibideak

E.1. Patenteen analisia

1. Sarrera

Duela gutxi, Massachusettseko Institutu Teknologikoko (MIT) ikertzaile-talde batek patente berrietan eta onenetan oinarritutako formula bat sortu du, teknologia arrakastatsuak zein izango diren aurreratzeko eta sektore teknologikoen aurrerapen-eritmoa neurtzeko. Konbinazio horrekin, zehaztu dute mende honetan orain arteko sektore berritzaileenak hauek izan direla, besteak beste: 3Dko inprimaketa, komunikazio optikoak eta haririk gabekoak, erresonantzia magnetiko bidezko irudi-teknologiak eta disko gogorrak. (Iturria: *El país*, 2015eko apirila)

Aurreko titularrean ikus daitekeenez, patenteak informazio-iturri garrantzitsua dira adimen lehiakorrerako. Trebakuntza-pilula honetan, ikusiko dugu patenteak zer diren, zer ezaugarri nagusi dituzten, patenteak analizatzeko adimen lehiakorrari zer informazio eman diezaiokeen eta analisia nola egiten den urratsez urrats.

2. Patenteak eta haien helburua.

Jabetza intelektuala babesteko erarik zaharretako bat da patentea, eta, jabetza intelektuala babesteko era guztiak bezala, patente-sistemak ere garapen ekonomikoa eta teknologikoa sustatzen ditu sormen intelektuala sarituz.

Patente baten helburua da aurrerapen teknologikoei babes ematea. Teoriak ezartzen du patentearen babesak asmakizun bat sortzea ez ezik asmakizun bat perfektionatzea ere saritu behar duela, teknologikoki egingarri eta merkaturatzeko moduko bihurtzeko. Halako pizgarriak sormen gehigarria sustatzen du, eta enpresei bultzada ematen die teknologia berria garatzen jarraitu dezaten, merkaturatzeko moduko, jendearentzako erabilgarri eta ongizaterako desiragarri bihurtzeko.

(Iturria: The World Intellectual Property Organization (WIPO) - Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundea (OMPI)).

3. Patentearen ezaugarriak

- Patentatutako asmakizuna eskusiban ustiatzeko eskubidea aitortzen duen titulu bat da patentea. Ez die uzten beste batzuei asmakizuna ez fabrikatzen, ez saltzen, ez erabiltzen, titularraren baimenik gabe. Horren truke, patentea publikoaren eskura jartzen da, jendeak haren berri izan dezan.
- Dokumentu bat da. Dokumentu horretan, zehaztapen batzuk jasotzen dira, asmakizun baten adibideak deskribatzen dituztenak, eta "erreklamazio" deritzenak deklaratzeko, hau da, asmakizunaren definizioak egiten ditu.
- Patente batek ez du ematen asmakizuna erabiltzeko eskubidea; bai, ordea, beste batzuk asmakizun hori fabrikatetik edo erabiltzetik "baztertzeko" eskubidea, bai eta patentatutako produktua edo prozedura merkaturatetik baztertzea ere.

- Prozedura berri baterako, aparatu berri baterako, produktu berri baterako edo haien perfektionamendu edo hobekuntza baterako izan daiteke patentea.
- Patenteak 20 urte irauten du, eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita. Patentea indarrean izateko, urteroko tasak ordaindu behar dira, ematen denetik.
- Patenteen abantaila erantsia da informazioa eremuka antolatuta eta egituratuta daukatela: eskaeraren data, eskatzailea, eskatzailearen herrialdea, egileak, nazioarteko patente-sailkapena.

4. Patenteak analizatzeak zer informazio eman diezaieke enpresei?

Patenteak analizatzea lagungarria da teknologia jakin baten analisirako edo lehiaren analisirako, eta galdera hauek argitu ditzake.

- Nor dira teknologia baten enpresa liderrak eta noiztik?
- Beste enpresa edo erakunde batzuekin lankidetzan aritzen dira edo taldea osatzen dute teknologia hori garatzeko?
- Sartu da enpresa berririk teknologia horretan lehiatzeko?
- Bada gorantz doan espezialitaterik teknologia horren barruan? Eta beherantz doan teknologiarik?
- Nor dira espezialitate horretako erreferentziak?
- Zer teknologia erabiltzen ditu nire lehiakideak?
- Zer herrialdetan dago patentatua enpresa bat?
- Zer herrialde dira teknologia baten liderrak?
- Zein dira patente garrantzitsuenak?
- Hazten ari dira interesatzen zaidan teknologia bati lotutako patenteak?
- Nor izan daitezke nire aliatuak edo hornitzaileak teknologia jakin batean?

5. Patenteen analisia urratsez urrats

Patenteen analisia honela egiten da:

- **Bilaketa**
 - o Analisiaren helburuarekin bat datozen bilaketa-parametroak aukeratu (teknologia, lehiakidea...).
 - o Aukeratutako patentearen datu-basean (adibidez, Espacenet, USPTO, EPO...) patenteak bilatu.

- **Patenteen deskarga eta inportazioa**
 - o Analisi-softwarean (Matheo Patent, VantagePoint...) aukeratutako patente-multzoaren eremu interesgarriak zuzenean deskargatzea edo inportatzea.

- **Datuen aurretratamendua eta analisia**
 - o Datuak garbitzea edo analisirako prestatzea (bikoizketak ezabatzea, taldeak sortzea...).
 - o Eragile, teknologia, herrialde... nagusien zerrendak egitea.
 - o Analisi estatistikoak eta irudikapen grafikoak sortzea (histogramak, matrizeak eta sareak).
 - o Harremanak eta joerak hautematea.
 - o Egoera zientifiko eta lehiakorren monitoretza.
 - o Emaitzak esportatzea.
 - o Ondorioak ateratzea.